

Familia agurgarria:

Ikasturte berezi honen amaierara iritsi gara, aski ezagunak diren zirkunstantziek baldintzatutako ikasturtea. Une egokia da ikastetxeko haur, familia, irakasle eta gainerako langile guztiek egin duten ahalegina aitortzeko eta eskertzeko. Eskerrik asko guztioi!

Pandemiaren eta txertaketa-prozesuaren bilakaerak nolabaiteko baikortasuna eragiten badu ere, gaur egun, eta datorren ikasturteari begira, Hezkuntza Sailak ez du aldaketa handirik aurreikusten jarduera-protokoloan. Ildo horretan, ekainaren 11n igorri diren jarraibideek ikasturte hau gidatu duten oinarrizko printzipioei eusten diete: kontaktuak mugatzea, prebentzio pertsonalerako neurriak gordetzea eta higiena, garbiketa eta aireztapena indartzea.

Abuztuaren amaieran Eusko Jaurlaritzak ikastetxeetan jarraitu beharreko protokolo orokorra eguneratuko duenez, iraileko lehen egunetan Ikastolaren protokolo zehatza bidaliko zaie familia guztiei, behin azken xedapenak eguneratuta. Bitartean, aurreratu dezakegu gure aurreikuspena honako hau dela:

- Beti hartu beharko da tenperatura etxean, Ikastolara etorri aurretik.
- Maskara derrigorrezkoa izango da Lehen Hezkuntzako ikasleentzat.
- Burbuila taldeak/Bizikidetza talde egonkorak mantenduko dira.
- Sarrerak Haur Hezkuntzan, orain arte egin den bezala: mailaka berezita, 9:30 eta 9:40 artean. Irteera: 16:55ean.
- Lehen Hezkuntzan, sarrera 9:25-9:30 bitartean ate berezietatik. Irteera: 16:55-17:00 bitartean.
- Jolasaldi bereziak, ordutegi eta espazioetan, mailen eta taldeen arabera.
- Higiena pertsonaleko neurriak mantenduko dira: eskuak xaboiarekin edo gel hidroalkoholikoarekin maiz garbituz eta aireztapena areagotuz.
- Jantokia eta garraioa, aurten bezala.
- Goizeko gelako eta Ikasguneko zerbitzuak mantenduko dira.

Arestian aipatu bezala, neurri eguneratu eta xehatuak irailaren lehen egunetan bidaliko dira.

Ordura arte, agur bero bat jaso eta uda ona pasa.